

Gaurko liburutegitik, pausoz pauso biharko ludoteka osatzen

IRATI URBERUAGA

Apurka-apurka, ludoteka osatzen dabilta herrian. Liburutegi 2004tik dago martxan, baina erabiltzaile nagusiak umeak izanda, haientzako eskaintza zabaltzen dabilta. Buztingintza tailerra, eskulanak... antolatu dituzte iaztik hona. Hona etortzen diren gehienak umeak dira, beraz, haiei zuzenduta antolatzen ditugu gauzak, esan du Ainhoa Lauzirika liburutegiko beharginak.

Gaur egun, oraindik ludotekarik dagoenik ezin daitekeela esan uste du berak: Pausoz pauso egiten gabiltzan beharra da, esan du. Baina umeen parte-hartzea eta liburutegia handia izanda, horretara doaz, ludoteka bat edukitzera.

Gaur egun 2.000tik gora liburu daude erregistroan, baina egun, askoz gehiago daude. Lauzirikak azaldu duenez, informatizazio prozesu batean sartuta daude. Bada, liburutegian dauden irakurgaiak sailkatuta daude. Umeentzako ipuinak daude alde batetik, adin tarte bakoitzarentzat kolore bat, eta bestetik, nagusientzako eleberriak.

Ikus-entzunezkoak

Horiez gain, liburutegi guztietan dauden entziklopedia eta antzekoak daude, sailkapen unibertsalaren arabera sailkatuta. Aldizkarien harpidetzak ere, geldiro-geldiro, egiten dabilta. Momentuz, Euskal Herria, Gaztezulo eta Argia-ren harpidedunak dira. Eta CD eta DVD eskaintza ere hazten dabilta. Musika, film eta dokumentalak maileguan hartzeko aukera egongo da, baina oraindik gutxi daude. Momentuz, 36ko gerraren inguruko dokumentalen bilduma bat eta hiru-lau film daude.

Hori guztia helburu jakin bategaz egiten dute: jendea liburutegira erakartzeko asmoagaz. Jendeak liburuak hartzea nahi dugu, esan du. Eta horrerako, ahalik eta erraztasun gehien ematen dizkiote. Jendearen eskariak hartzen dira kontuan, eta horien arabera liburuak ekartzen ditugu.

Ordenagailuak ere bai

Paperezko euskarriez gain, ordenagailuetan ibiltzeko aukera ere ematen du Munitibarko liburutegiak. Eusko Jaurilaritzak jartzen duen KZguneaz gain, beste ordenagailu bi daude erabiltzaileen eskura. Batez ere gaztetxoek hartzen dute parte. Baina ez beti eskolako beharrak egiteko... Askotan jokoetan ibiltzen direla aitortu du.

Eta asteburu batzuetan, filmak botatzen hasi dira. Aupa Etxebeste! euskarazko komedia jarri zuten orain dela pare bat aste, eta aurrerantzean ere horretan jarraitzeko asmoa daukate. Jarriko ditugun pelikulak, gero maileguan hartu ahalko dira, azaldu du Lauzirikak.

Herri txikian egoteko, eskaintza itzela dauka Munitibarko liburutegia. Eta eskaintzen dena aprobetxatzeko, arratsaldeetan joan behar da hara, 16:00etatik 20:00etara. Uztailan, osteran, goizetan egoten da zabalik, 10:00etatik 14:00etara. Kontuan hartu behar da umeak direla erabiltzaile nagusiak, eta beraz, batez ere haiei begirako ordutegia antolatu genuen. Abuztuan ateak ixten dituzte. Eskaintza gero eta zabalagoa dute. Eta horrela jarraituko dute, pausoz pauso, ludoteka osatu arte.